



## BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAN INFORMAZIOA BEREHALA EMATEKO SISTEMA SARTZEKO FORU DEKRETUAREN PROIEKTUARI BURUZKO AURRETIAZKO KONTSULTA

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenaren, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuarekin, goiburuan aipatutako aurreproiektua/proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- arauaren helburuak,
- ordezko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, balio erantsiaren gaineko zergan informazioa emateko arau esparrua ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 2017ko irailaren 21era arte, [aurrezkontsultak@araba.eus](mailto:aurrezkontsultak@araba.eus) helbide elektronikoko postontziaren bidez.

<b>AURREKARIAK</b>	<p>BEZean informazioa berehala emateari dagokionez:</p> <p>Kontseiluaren 2006ko azaroaren 28ko 2006/112/EE Zuzentarauak, balio erantsiaren gaineko zergaren sistema komunari buruzkoak, honako hau xedatzen du:</p> <p>-Subjektu pasiboek xehetasun handiko kontabilitatea kudeatu behar dute, balio erantsiaren gaineko zerga aplikatu ahal izateko eta zerga administrazioak kontrolatu ahal izateko bestekoa.</p> <p>-Subjektu pasiboek erregistro batean jasota izan behar dituzte ondasun hauek: beraiek edo</p>
--------------------	---



	<p>beren kontura jatorriko Estatu kidearen lurraldetik kanpora baina Erkidegoaren barruan eraman edo bidali dituztenak, ondasun horiek tasatzeko eragiketetan erabili daitezzen, edo horien gainean obra gauzatu dadin, edo aldi baterako erabili daitezzen.</p> <p>-Estatu kideek beharrezko jotzen dituzten bestelako betebeharrak ere ezarri ahal izango dituzte BEZa behar bezala bilduko dela bermatzeko eta iruzurrari aurea hartzeko, betiere barneko eragiketei eta estatu kideen artean egingo diren eragiketei tratu berdina emateko printzipioa betetzen badute.</p> <p>Euskal Autonomia Erkidegoko hiri finken errentamendu kontratuen erregistroari eta fidantzen gordailuari buruzko kontuetan EAEko Administrazio Orokorrari informatzeko betebeharra jartzeari dagokionez:</p> <p>42/2016 Dekretua, martxoaren 15koa, fidantzak jartzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiri finken errentamendu kontratuen erregistroari buruzkoa.</p>
<b>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b>	<p>Honako hauek egin nahi dira:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Zerga iruzurraren kontrako borroka erraztu.</li><li>- Kalitate handiagoko datuak lortu.</li><li>- Kontabilitateko jardunbideak zuzen eta hobeto aplikatu.</li><li>- Kostuak murriztu.</li><li>- Eraginkortasun handiagoa lortu.</li></ul>
<b>ONARTU NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA</b>	<p>BEZean informazioa berehala emateko sistema sartzearen oinarria zuzentarau honetan dago: Kontseiluaren 2006/112/EE Zuzentaraua, 2006ko azaroaren 28koa, balio erantsiaren gaineko zergaren sistema komunari</p>



	<p>buruzkoa.</p> <p>Lurralde erkidean zerga horretako zergadun jakin batzuei betebehartzat ezarri zaie zerga horri dagozkion liburuak kudeatzea Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren egoitza elektronikoen bitartez, fakturazio erregistroak elektronikoki hornituz. Betebehar hori 2017ko uztailearen lehen sarta da indarrean.</p> <p>Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeek, elkarren arteko adostasunez eta aipatu bezalako baliabide elektronikoen bidezko betebehar formal bat ezartzearen inguruabarrak aintzat hartuta, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera erregistro liburu elektronikoen kudeatzeko sistema bat ezartzea aurreikusi dute.</p> <p>Teknologiaren aurrerapenetara eta gaur egungo errealitateara egokitu beharra dago; izan ere, egun, erregistro liburuak kudeatzeko baliabide elektronikoen edo informatikorik erabiltzen ez duen oso enpresaburu eta profesional gutxi dago.</p> <p>Kontratuen erregistroari eta alokairuetako fidantzen gordailuari buruzko kontuetan EAEko Administrazio Orokorrari informatzeko betebeharra ezartzeari dagokionez, beharrezkoa da hori jartzea, zergak kudeatu eta ikuskatzeko behar den informazioa edukitzeko.</p>
<b>HELBURUAK</b>	<p>Zergadun jakin batzuei betebehartzat ezartzea BEZari dagozkion liburuak kudeatu ditzatela Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez fakturazio erregistroak elektronikoki hornituz.</p> <p>Sistema horri heltzeko aukera ematea baldintza jakin batzuk betetzen dituzten beste enpresaburu, profesional eta subjektu pasibo</p>



	<p>batzuei.</p> <p>Doiketa teknikoak egitea araudian.</p> <p>Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari informatzeko beste betebeharrak ezartzea.</p>
<p><b>ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK</b></p>	<p>Ordezko irtenbidea da informazioa orain arte bezala ematen jarraitzea.</p> <p>Informatzeko betebeharrari dagokionez, ordezko konponbidea da halakorik ez ezartzea.</p>